



Hiru kaleko hiria

drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 169. alea 2009ko ekaina



UGARRO
AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com

943 17 43 44

Faxa. 943 17 54 58

UDAL EUSKALTEGIA

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA
IKASTARO TRINKOA
IRAILEAN

Ikastaroa ▶

1. Maila (1HE), 2. Maila (2HE) eta 3. Maila (3HE/EGA)

- Azterketak urrian
- Noiz: Irailaren 1etik 28ra.
- Ordua: 9:00etatik 13:00etara (80 ordu)
16:00etatik 20:00etara (80 ordu)

Matrikula epea ▶ uztailaren 10era ARTE

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA
(Teresa Murga eraikina, 2. solarirua)
Tlfnoa: 943170925
euskaltegia@udalermua.net



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1.

943 17 93 50.

drogeten@gmail.com

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Asier Ibaibarraia,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu, Olatz Gil
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Estibalitz González.

LAGUNTZAILEAK:

Piedi Eizagirre,
Igone Amesti, Patxi Lopez,
Zaida Fernández, Idoia
Carracedo eta Fede
Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Alazne Aiestaran, Olatz Gil,
Dorleta Vidal, Ermuko Udala,
Santos Vega, Asier
Ibaibarraia eta 'Aves de
Euskal Herria' liburua.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Aritz eta Ekaitz Muñoz
eta Jon Arano.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Txori polita da eta erraz ezagutzeko modukoa, batez ere hegotan dituen luma urdinengatik. Sustakina denez, zaila da bere kolore ederrak ikusteko aukera izatea. Talde txikietan bizi da eta oso zaratsua da; karraskada moduko bat, kark! luze bat entzutean errez identifikatuko dugu, ikusterik ez baldin badugu ere. Udazkenean neguan jateko intxaur, ezkur eta urrak batzen ditu. Bere papo barruan sei ezkurreraino garraiatzeko gauza da, zulo baten sartu eta lurrez estaltzen dituelarik. Beheren 'Abeletxe' baserri edo Gere auzoaren inguruetan ibiltzen da eta 30 mt.ra hurreratuta ere, agudo egiten du alde.

Eskillasoa Arrendajo

Garrulus glandarius



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	KIROLZALE17
Jasokunde abesbatza	Andoni Aldape
ELKARRIZKETA5-7	ANTZINAKOAK18
Francis Paniego	Ermua eta Mallabiko argazkiak
MALLABIAN ZER?8-9	SALEROSKETAK19
Ermittak	Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA10-11	IRITZIA20
Erdi Aroko Ermua Hiria	Sexu diskriminazioa
MOTZEAN12-13	KALEKO INKESTA21
Pedro Horrillo / Postal lehiaketa	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ERMUAN ZER?14-15	AGENDA22
Artarrai Mendi Taldea	Uztaileko agenda
BOTEPRONTOA16	
Nor da Isi Redondo?	

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Jasokunde abesbatza

Iratxe Uribelarrea zuzentzen duen Mallabiko abesbatza hau, 1993. urtean sortu zen. Duela aste batzuk ETB1eko 'Oh happy day' saioan parte hartu dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Jasokunde abesbatza 1993an sortu zen, baina 1997 urtean federatu ginen.

- Zenbat kide zarete?

Guztira 16 pertsona gara taldean, momentu honetan 15 abeslari hiru aho-tsetan banatuta eta Iratxe Uribelarrea zuzendari lanetan.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Musikaz gozatzea, egiten dugunarekin ondo pasatzea eta disfrutatzea dira gure helburuak. Talde txikia garen, harreman estua dugu gure artean eta honek bere puntu onak ditu. Guztion artean helburu hauek lortzen saiatzen gara.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astean birritan biltzen gara entseatzeko, asteazkenetan 17:00etatik 18:30era eta ostiraletan 19:00etatik 20:30ak arte, Mallabiko eskolako aretoan.



- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtean ekitaldi ugari egiten ditugu, besteak beste, Santa Zezilia, Gabonak, Udaberriko kontzertuak, Santa Ageda, elkartrukeren bat... denetarik. Orain ETB1eko 'Oh happy day' saioan ere bagabiltza eta oso pozik, esperientzia berria da guretzako eta gauza berriak ikasteko baliogarria iruditzen zaigu.

- Txangoak ere egiten dituzue?

Urtero asteburu pasa bat egiten dugu, urte bakoitzean leku ezberdin bat

ezagutzera joaten gara. Positiboa izaten da, taldeko harremanak sendotzeko.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Iratxe Uribelarreari deituta 680706216 telefonora edo entseguetara agertuta. Esatekoa da baita ere, Jasokunde abesbatzak baduela web orria: www.jasokundeabesbatza.com. Bertan abesbatzaren berriez gain, argazkiak eta bideoak ikusteko aukera izango duzue.

Olatz Gil

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

IZELAIETA, 40 Tel. 17 00 63
ZUBIAURRE, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

drogeteniturrri

**Euskal
Birusa
Elkartea**

943 17 93 50
Elxoste



Francis Paniego, sukaldaria:

“Goi sukaldaritza zabaltzeko aukera ezin hobea ematen dute elkarteek”

1968. urtean jaio zen eta bizitza osoa lapiko artean pasatu du. Bere familiak Echaurren Hotela erosi zuen XIX. mendean, Ezkarain, eta bera da 5. belaunaldiaren ordezkaria. 2004an Michelin Izarra lortu zuen, teknika tradizionalak eta abangoardiakoak nahastuta egiten duen sukaldaritzari esker. Kirolaria, 3 seme-alaben aita eta sukaldaritza japoniarraren mireslea, ekainean Ermuko Jardunaldi Gastronomikoetan parte hartu zuen.

elkarrizketa

- *Noiz jakin zenuen sukaldaria izan behar zenuela?*

Etxean betidanik bizi izan dut sukaldaritza eta nolabait horrek bultzatu ninduen. Beti lagundu izan diot amari eta 16 urterekin Madrileran eraman ninduten, sukaldaritza ikastera. 'Hankasartze' itzela izan zen.

- *Zergatik?*

Ettxera bueltatzen zarenean dena aldatu nahi duzula, ikusi dituzun gauzak probatu, eta horrek, eztabaidak ekartzen ditu. Gero zure lekua topatzen duzu, apurka-apurka. Guk jantoki txikia genuen hotelaren ondoan, asteburuetan bakarrik zabaltzen genuen, eta han nire sukaldaritza garatzea lortu nuen, El Portal de Echaurren du izena. Nire amak sukaldaritza tradizionala egiten du ondoko jatetxean.

- *Elkarri konpetentzia egiten diozue?*

Hasiera, batez ere, zaila izan zen. Ama batek semeak baino sinesgarritasun gehiago duelako eta herri txiki batean abangoardiako sukaldaritza bat batean ezagutzera ematea zaila delako. 2004an Michelin Izarra lortu genuen eta horrek behar genuen azkeneko bultzada eman zigun, batez ere nire lanari esker ona eta onarpena eman ziolako. Nire amaren lanak aurretik bazuen ospea. Orain jendeak ondo



Argazkiak: Santos Vega

desberdintzen ditu nire amaren jatetxeko sukaldaritza eta nire jatetxeko sukaldaritza.

- *Michelin Izarra sukaldaritzan dagoen saririk garrantzitsuena da?*

Bai, gaur egun zoritxarrez pneumatikogileek markatzen dute sukaldaritza! Ilusio handia egin zidan, Errioxako lehen Michelin Izarra izan zen eta dagoen bakarra oraindik ere. Hiru Michelin Izar lor daitezke, beraz, tarte dugu oraindik.

- *Subijana, Arzak, Ferrán Adrià..., lehen mailako sukaldariekin egin duzu lan. Zein sukaldari miresten duzu?*

Esan dituzun guztiak eta beste asko. Juan Mari (Arzak) eta Pedro (Subijana) benetako maratoilariak dira, hainbeste urte gailurrean, lanean presa barik, baina geratu barik. Ferrán Adrià aparteko pertsona da, espainiar sukaldaritzaren alde lan ikaragarria egin du, munduko abangoardian jarri du, erreboluzioa egin du. Zalacainen ere egin dut lan, Benjamin Urdiainekin. Baina nire amaren lana ere miresgarria da eta jatetxe batera joaten naizenean, sukaldari begiradaxoa bota eta han dagoen emakumea ikustean meritu handia duela pentsatzen dut. Bihotzez egiten duen orok, meritua du. Lan gogorra da.

- *Zergatik dago hain emakume gutxi goi sukaldaritzan?*

Nire etxean, bost belau-nalditan, lehen gizona naiz, beraz, aldrebes izan da lu-

zaroan. Orain, gero eta emakume gehiago ikusten da berriro eta nire sukaldari emakume asko dago, eta berriak etortzen joango dira. Ez dakit oso ondo azaltzen, agian orain denek epaiak, abokatu eta kazetariak izan nahi dutelako, ez dakit, benetan.

- *Zein jatetxetan bazkalduko zenuke berriro?*

Probatu ditudan guztietan. Eta noizbehinka errepikatzen dut. elBullin 93an egon nintzen, 99an bueltatu nintzen eta ahal dudanean berriro bueltatzeko asmoa daukat. Juan Marirekin 10 egunez joan ahal banaiz, ederto! Eta Pedrorrekin baita ere. Lanbide honetan ikasten jarraitzen duzu beti.

- *Beste sukaldariekin, beraz, harremana ona da...*

16 urterekin Madrileran joan nintzenean, leku batean lanean hasi nintzen. Bakoi-tzak bere koadernotxoera

**"Michelin Izarrak behar
genuen azkeneko bultzada
eman zigun"**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
aseguruak
San Pelayo
aholkularitza
fiskal eta juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

maten zuen atzeko poltsikotan eta errezetak han idazten genituen. Sukaldari-buruak osagairen bat bota behar zuenean, buelta erdia ematen zuen, guk ez ikusteko. Ez zen asko konpartitzen. Orain, 41 urte ditut eta, zorionez, oso ezberdina da. Sukaldariek liburuak kaleratzen dituzte, errezetak detaile guztiakin azaltzen dituzte. Nik zalantzak ditudanean besteei galdetzen diet eta nire teknikak azaltzeko ere ez dut inolako arazorik. Iritzia ere eman dezakegu, baina kritikorik hobereena bezeroa da.

- Bezeroen erreakzioari erreparatzen diozu zuk ere?

Bai, zerbait bilatzen duzu bezeroarengan. Zure lana gustatzea nahi duzu, bueltatzeko gogoarekin gera dadin. Konplizitatea nahi duzu

ere, zuk zerbait adierazi nahi duzu prestatzen dituzun platerekin eta bezeroak irakurtzen jakitea eskertzen da. Sukaldaritza intelektuallagoa da, nolabait esateko, formazio apur bat behar da.

- Zelan definituko zenuke zuk egiten duzun sukaldaritza?

Estiloa ez da gauek egunera definitzen, zaila da. Urteetan ikasi duzuna, besteek emandakoa, zu zarena, zure ingurua... Horrek zure nortasuna sukaldari moduan definitzen du. Ezkarain baratza eta ardoa dugu gertu eta horrek kutsu tradizionala ematen dio nire estiloari, eraberritutako abangoardiarekin nahastuta.

- Zer garrantzi du aurkezpenak?

Asko. Bost zentzumenetarako egiten da sukaldaritza hau, eta begiek ikusten due-

“Bezeroarengan konplizitatea bilatzen duzu, zure platerak irakutzen jakitea”

nak informazio asko ematen du, egosketa-puntuarena esaterako.

- Eta edariak?

Edaria ere garrantzitsua da, baina gaur egun garrantzi handiegia ematen zaiola uste dut (Errioxakoek entzuten banaute...). Maridajearekin ez nago guztiz ados, esaterako, bazkari batean 8 ardo ezberdin edatearena ez dut oso argi ikusten. Ardo zuriarekin hastea nahiago dut, eta gero bazkari osoan zehar ardo suabe bat edatea, ez oso taninoduna, erreserba bat. Janariari lagundu behar dio, ez prota-

gonista izan.

- Zaila da goi sukaldaritza zabaltzea?

Beno, Jardunaldi Gastronomikoetan parte hartzeko deitzen digutenean, baietz esaten dut normalean. Pertsona batzuk zure mahaian jaten ikustea zaila da, hainbat arrazoiengatik, eta modu honetan zu joaten zara euren mahaira. Nahi beste baliabide ez dituzu, tresnak falta zaizkizulako, baina garrantzitsua da lan ona egitea. Predikatzeko-edo modua da. Horregatik gaur ekipa titularrarekin etorri gara Ermura, dena ondo irten behar delako.

Dorleta Vidal



Francis Paniego bere taldearekin eta Gastronomi Jardunaldien antolatzaileetako birekin.

Afari arrakastatsua

Gaurkotutako ohiko sukaldaritza aurkeztu zuen Francis Paniegok ekainaren 16an Txalaparta elkartearen aurtengo Jardunaldi Gastronomikoen barruan. Elkartearen bete egin zen, 70 lagun elkartu ginen, eta bertan zeuden guztiak liluratuta geratu ziren prestatutako platerekin. Izen sinpleak eta elaborazio benetan bikaina.

Lobiano
Gastronomia
Elkarteko kideak

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Mallabiko ermitak

San Pedro Bidartekoaren ermitta

San Pedro Bidarte izeneko ermittie Mallaldea auzuen dago kokatute. Ermitta hau XIX. Mendien, 1848xen eraiki zan; beronek hemendik 50 metrotara egoen Mallagarai-ko San Pedroren eta 100 metrotara aurkitzen zan Aingeru Sainduaren ermitten ordezkotza hartu eban. Aipatutako bi ermita honek jausteko arriskuen eta egoera larrixen egozela ikusirik, 1847.eko urrixaren 16xen egindako bisitan, Kalagurri eta Kaltzadako Pablo Garzia Abella goztainak adierazten dabenez, desegitea, txikitzea agindu eban eta honen ordeztza berrixe jasotzie. Ermitta honek, oinplano errektangularra dauka, ageriko manposteriako hormak eta harlanduzko hertzak. Lau isurkiko teilatue dauke. Kanpaie dauken hutsarte bateko harlanduzko kanpai-horma eta akrotera bi, piramide eta es-

fera formaz apainduak, azken forma esferiko hau kanpai-horma errematatzen daben burdinazko gurutziazen oinarrix da. Barnekaldien estalkixek sabai faltsue dauke, dinteldun atie eta hegoekialderantz dinteldutako lau bentana, euretako bat itsutue eta aurrekalde nagusixen itsutute be daguen erdi puntuko arkudun leihue. Nabiaren zoladura egurrezkie da eta presbiterioarena porlanezkie. Arkupiek jatorrizko harrizko losak gordetzen dittu. Zurezko koroa eta arkupea du oinetan. Dinteldutako ate haundi bat pasaez, ermita onduen dagoen neurri haundiko dorrera heltzen da. Sabaia egoera txarrean dago; bestea nahiko ondo. Ermita honetara Astzentzio



aurreko astelehen eta martitzenez errogatibak, Letainiak egitten ziren Mallabiko Jasokunde Parrokiatik. San Pedro eta San Gabriel Goiaingeruaren imaginak lapurtuek izan ziren. Jaia San Pedro egunez ekainak 29 ospatzen da domeka bada, bestela hurrengo domekan.

Gereako San Adrian deunaren parrokia

1386.eko martxoaren 4an, Juan lak Gaztelako erregiek Bolibarko monastegixe Ziortzari emon eutsen. Bolibarko monastegiaren barruen gune erlijioso batzuk, Zengoiteko, Goitako eta Geriako ermittak bestiek beste, aurkitzen ziren. 1558.ean Geriako ermita parrokia bihurtzen da, Bolibarko abade eta Ziortzako kanoniguen arteko adostasun bati esker. Berez Gereako parrokia 1558ra arte Bolibarrri lotuta egon zan. Oinplano errektangularra dauke, ermitten antzera, eta bi isurkiko teilatue. Aipatu beharreko da XVI. mendeko hasierako sarrera daukela: arkue harri haundiz eraikitteko ga-

kode ne da; ertz zuladunez apaindue, zutarri estu batzuetan finkatzen diren bi ziri eta hauek harrioin eta kapitel era askotakoei loturik dagoz. Arkue Errege Katolikuen erako lauki batek be-reizten dau, oinburu txiki batzuk eusten dabelarik. Multzo hau, nahiz eta sinplea izan, bene-benetan ederra eta interesgarria da. Eraikuntza harri-hormaz egina da, sarbiderako horma zuritute dago eta sarrerako ondo eba-kitako harrilanduak aipagarriak dira. Nahiz eta dana ez, gehixena egurrezko elizpeaz inguratuta dago. Orain ez, baina lehen pilotarako erabiltzen zan zati bat. Elizaren inguruen Gisasolatar Domingok 1811an egindako hilobixek aurkitzen dira. Losa baten 'AGUIR' irakurri leike. Barrukaldeko koroa XVI. mendekoa da eta bertan oboidez hozkatutako esku-banda dotore aintzinakoa aurkitzen da. Jaia ekainaren 16an, San Adrian egunez eta hurrengo asteburuan ospatzen da.

Eneritz Aranburu





FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

9431 72665 ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona

JULENE LARRAKOETHEAK IRABAZI DAU ESKOLAKO LOGO LEHIAKETA



Trabaku Beheko Julenek sortu dau Learreta Markina eskolako logo baxixe. 250 euroko sarixe jaso dau Julenek eta Eskola eta Mallabiko herrixe identifikatzen dittun irudixan egilie izatie. Gaur egun ikasle diren eta eskola honetan ibilitekuek aurkeztu ahal izen dabiez loguek. Biharleku gatxa eduki dabe epaimahaikoek lehiaketara aurkeztu ziren 33 lanen artien onena aukeratz-

zen. Udaleko Kultura Zinegotzi dan Ohiana Onaindia, irakasle bi eta guraso elkarteko kide biren artien, Juleneren lana onena lez ebatzi ebien maiatzaren 29xen. Lehiaketara aurkeztutako gainerako lanak ikusgai dagoz liburutegixen ekainaren 8ttik aurrera eta 30 egunen barruen.

IH. ANDRA MARI JAIHEN KARTEL LEHIAKETA

Urtero legez eta aurten bederatzigarrenez, Andra Mari jai-xetarako kartel lehiaketa martxan ipini dau Mallabiko Udalak. Oinarrixek eskuragai dagoz udaletxien eta liburutegixen. Honan hemen garrantzitsuena: kartelien agertu biherreko testue 'Andra Mari Jaiak 2009' izengo da eta neurrixek DIN A-3 (29'7x42 cm.), kolorie librie eta euskarri gogorrien aurkeztu biherko dira. Partaide bakotxak gehienez kartel bi aurkeztuko dittu uztailaren 1era arte, berau barne. Kartel bakotxari lema ipini biherko jako kartazal baten barruen idatziko dana eta bertan egiliaren izena, abizen bi, helbidie eta telefonue be idatzi biherko dira. Sarixe 300 eurokue izengo da kartel aukeratuarentzat. Epaia uztailaren erdialdien emongo da. Saririk hartu bako kartelak Udaletxien edukiko dira, eta jaixek amaittu osteko 30 egunetan hantxe egongo dira egileen eskura.

UI BIHARKO IZARRAK FINALEAN YOLDI ETA LARRINAGA IRABAZLE

Andoni Aldape mallabittarraren eta Gorka Esteban errioxarraren aurka 22-9 irabazi eben, afizionatuen artien berebiziko garrantzia hartu dabean pelota torneo honetan. Goraino beteta eguen pelotalekuek jan egin zittun Aldape eta Esteban. Errez gailendu jakuezan Yoldi eta Larrinaga hasieratik kolorerik erakutsi ez eban partiduen. Torneo guztixen ziherr maila oso ona erakutsi dabe lau pelotarixek, baina nerbixuek eta herrixan aurrien jokatziek dauken arduriek eraginde edo, ezin izen eben ezer egin sakez 5 tantu egin eutsiezan bikotian kontra. Quina azkoittiarra izen zan laut`erdiko finalien nagusi (22-15) Aurtenetxeren aurka.



MALLABIA.ORG, GURE HERRIHE SARIEN

"Udala da herriarengandik hurbilen dagoen erakundea" esanez hasten dau agurra Aitor Loiola Zinkunegi alkateak www.mallabia.org web orri barrixen. Mallabiko Udalaren web-gune honen helburuetariko bat "bisitatzen gaituztenei zerbitzu bat ematea" dala dino. Herrixari buruzko informazinue, gestio bat zelan egin behar dan argibidiek emotie eta gure herrixen zer zerbitzu daguezan eta abar adieraztie bilatzen dau orri honek. Iradokizunak badakizue, egin klik eta erabili.

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA

KALORIK

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

IAKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 90 38

IZOTZ KONTELATUAK

Ermuko Merkatua.
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

URRETA burdindenda

- ✗ *Etrea*
- ✗ *Tresneria*
- ✗ *Brikolaita*
- ✗ *Rielak*
- ✗ *Giltzak*
- ✗ *Zerrailgintza*
- ✗ *Kit altzariak*

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Erdi Aroko Ermua hiria

Azken asteotan, Udaleko Sustapen eta Enplegu Sailak, Ermuan zehar bisita gidatu batzuk egiteko proposamena luzatu zuen herritarren artean. Bisita horien gidaritza Iñaki Pereda García arkeologo eta historiagilearen esku egon da. Hona hemen bertaratutakoek entzundakoen laburpen txiki-txikitxo bat.

Ermua Hiriaren lehen berria 1372ko urtarriaren 20koa da. Sorrera-gutuna barrik pribilegioen berrespenidatzia denez gero, eztabaida sortu du autore ezberdinen artean hiriaren sorrerataren inguruan. Edozein modutan ere gehienek XIII. mendean kokatzen dute hiriaren sorrera, 1290 urtea aldera.

Estrategikoki kokatua dago, Deba Bailara eta Durangaldea arteko pasabide den bailara estu baten. Zergatik da kokapena estrategikoa? Bi arrazoirengatik: lehenengo Bizkaia eta Gipuzkoa arteko muga indartzeko eta bigarrena seguruenik Bizkaiko Done Jakueren bide bat izan zitekeenarekin zuen loturagatik; Ermuko elizaren izenak hala adierazten duela dirudi.

Harresi dokumentatua

Hiria inguratzen zuen harresia dokumentu askotan

aipatzen da. Lehenengo aipamena 1372koa da. Kasu horretan aipamen zuzena da, harresia bera eraikitze-ko aginduak ematen baitira. Bigarrenik hesia zegoela egiaztatzen da Ermuko alkatea (Juan de Ibarak) eta hiriaren artean 1722an egindako lur-trukea jasotzen duen dokumentuan. Pinedo Otaolaren iritziz, aipaturiko lurrak Goienkale eta Artekale (egun Erdikokale) kaleen artean egongo ziren kokatuta, erreka muga zutela.

Bestalde, hainbat dira Ermuaren historia aztertzean hesia aipatzen duten liburuak. Iturriak, "Bi ateko mendebalderanzko harresia"ren zati baten berri ematen du; gauza bera aipatzen du González Arnauk 1802 urtean argitara emaniko bere 'Diccionario Histórico-Geográfico del País Vasco' liburuan eta baita Delmasek ere. Are gehiago, García Pérez edo Onaindia



Erdikokale, Erdi Aroan Artekale, hiriaren bihotza: bertara zabaltzen ziren eliza eta haren pareko Kontzejuaren etxea, udaletxea.

Estrada bezalako autoreek Bizkaiko jaurreko harresirik onenetakotzat daukate.

Hiru kale besterik ez

Oraintsuagoko ikerketetan, azaltzen da herria bastida formako (almendra formako) plano erraz baten antolatuta zegoela, hiru kale labur paralelok (Barrenkale, Artekale eta Goienkale) osatua eta kantoi batek ortogonalki zeharkatzen zituela. Argi dago herriko elizaren izenak Erdi Arora garamatzala bete-betean; horrek antzina Eibar, Deba eta Mutrikura zihoan bidean

ezarri zen herri txikitxo bat izango zela pentsarazten digu, orain Valdespinako Markesa deitutakoa kale nagusi zelarik. Kale horren egungo trazadura bihurgunetsuak ere hala adierazten du. Gerora, bide horrek beste bi kaleen trazadura baldintzatuko zuen. Badirudi hirigune historikoa harresi-perimetro baten barruan egongo zela eta harresiak hiru ate izango zituen seguruenik: bi mendebalderantz eta bestea ekialderantz. XVIII. mendearen azken aldera mendebalderanzko biak zutik zeuden oraindik.

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

Errekaldetik datorren erreka lubanarro (foso) naturala izango zen, egun Komentuko kalea dagoen lekuan, Urtia ibaia lotzen zitzaion, Errekalde-Urtia eratuz.

1966an Orbe Kardinalaren plazako 8. orubean egindako indusketan horma-zati bat aurkitu zen orubearen iparraldean, harresi zati bat izan zitekeena. Nahikoa hondatua bazegoen ere, hormaren metro eta erdiko lodierak eta orientazioak aipatutako planteamendua berresten duela dirudi. Hirriaren iparraldea ixteko izango zen.

Harresiaren gainerako trazadurari dagokionean, Zubiaurretik (mendebalderantz) igaroko zen Valdespi-

nako Markesa kalerantz (hegoalderantz) joanez. Azkenik, ekialdean sortzen dira harresiaren trazaduraren inguruan zalantzarik handienak. Nolanahi ere zentzuzkoa da harresia izan bazela pentsatzea, nahiz eta XVI mendearen erdialdera, Lobiano Jauregia altxatu bazen, harresia jausita egongo zen. Litekeena da egungo Aldapakoa baserrira doan kalea barrualdeko ingurabidea zaharraren fosilizazioa izatea. Azken baten, harresiak hiru kaletan antolatutako etxadiz osatutako perimetroa mugatuko luke, hiru kaleok mendebalderantz zuzen eta ekialderantz zehar (oblikuoki orientatuak), Iruletako



Valdespina Markesaren kaleak bere trazaduran duen bihurtunea, bide zahar bat aprobetxatzen zen adierazgarri.



Iñaki Pereda bisita gidatu batean.

atarian hirurak bat egiten baitute.

Hirigune historikoa guztiz aldatua dago gaur egun. Lur-zatiketa gotikoaren az-tarnak daude oraindik: Orbe Kardinalaren Plazan (antzina Goienkale), egungo Erdikokalen eta Erdikokale berera eta Valdespinako Markesa kalera (aintzina Barrenkale) ematen duen etxadi dolean.

Hiri tankerarekin sortutako guztietan gertatzen den bezala, hasieran lur zatiak homogeenak izango ziren, baina gero, demografi-hazkundearen ondorioz, zati-titu egingo ziren 'gotiko edo alforjazkoak' izenez ezagutzen ditugun orube estu eta sakon bilakatuz. Atzealdeko espazio libreari buruz, dirudienez baratze-tarako erabili eta orube eraikigarriaren zatiki izango zela, horixe besterik ezin dugu esan. Azterketa arkeologiko gehiago egin behar dira gauzak zehazteko.

Erre ostean, plaza

XVIII. mendearen azkenaldetik aurrera hiriak alda-

keta handiak jasan behar izan zituen eta lurren lehengo zatiketa desegin egin zen. Aldaketarik handiena 1794ko abuztuaren 29an Konbentzioaren armada frantziarrek eragindako suteak ekarri zuen, baina 1834an 1. Karlistadaren garaian, Ermua hiria berriro erre zuten.

Ermuak denbora luzea behar izan zuen 1794ko hondamen hartatik aurrera ateratzeko. Seguruena sute hartatik aurrera sortuko zen hiriaren egungo irudia eta hirian egun diren elementu berriak, Orbe Kardinalaren plaza esaterako.

Testuinguru horretan egingo zen plazako frontoia eta udaletxe berriaren eraikina parean (egungo kioskoa baino apur bat atzerago). Udaletxe berri horrek Santiago plazatxoan, eliza parean 'Arkupe Zaharrak' izenez ezagutzen den lekuan zegoen Kontzejua ordezkatu zuen, oraintsu berriztatua izan den eraikina.

Iñaki Pereda García

ARTARRAI OPARI DENDA




Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

Vicente Cendoya 'Aizti'

Maiatzaren 24an hil zen,
81 urte zituela

*Gure atsekabea eta
elkartasuna adierazi
nahi dizkiegu haren
senide eta lagunel.*



Euskal Birusa

**SAN JUAN SUA,
EKAINAK 23AN**

Iaz bezala, Euskal Birusa Elkartek eta herriko boluntario talde batek San Juan sua egingo dute ekainaren 23an, 22:00etan, Kardinal Orbe plazan. Ekitaldian, abestiak eta dantzak egongo dira, Pispillu abesbatza, irrintzi txapelketa eta suzko zezena. Iaz baino eguraldia hobea egitea espero dugu, anima zaitzete!

**MANUELA GARCIA,
SANTIXAUETAKO
KARTELAREN
IRABAZLEA**

Kultura Sailak ezagutzera eman duenez, Manuela García ermuarrak Santixauetako kartel lehiaketa irabazi du. Lehiaketara 19 lan aurkeztu dira, baina Manuelak 600 euroko sari bakarra eskuratzea lortu du. Kartela 22. orrian ikus daiteke, Agenda atalean.

**BERBALAGUN,
IKASTURTE AMAIERAN**

Berbalagunek Sabel dantza ikastaroa egingo du uztailearen 8, 15 eta 22an. 19:00etatik, 21:00era Lobiano kulturgunean (doan). Horretaz gain, aurtengo edizioaren bukaera ospatzeko, afaria egingo dute Berbalaguneko kideek uztailearen 3an, 21:45ean Mendiola jatetxean. Tribial sariak banatuko dira bertan.

**Leire Elustondo eta Maialen Gomez,
Euskadiko Txapeldunak**

Alboka Musika Eskolako ikasle diren Leire Elustondok (16 urte) eta Maialen Gomezek (15 urte), 1. saria lortu zuten aurtengo Euskal Herriko Haur Kantari txapelketan, ekainaren 6an Barakaldon ospatutako finalean. Finalera heltzeko, piano-jole eta baxu-jotzaile hauek Bizkaiko kanporaketa gainditu behar izan zuten eta agerraldi guztietan Sugan taldearen 'Irudiaren bizitza' abestu zuten. Guztira, 2.000 gazte baino gehiago aurkeztu ziren lehiaketara, baina txapela eta garaikurrak ermuarrentzat izan ziren amaieran. Horretaz gain, Leirek eta Maialenek talde batean jotzen dute, Egara izenekoa, Lara Alonso, Sara Rodríguez eta Inés Aranorekin batera. Talde horrek 2. postua eskuratu zuen Bizkaiko finalean. Xabier Martín, berriz, 3. geratu zen Bizkaiko finalean bakarlari moduan.

**Postala bidali eta bidaia irabazi**

Urtero moduan Euskal Birusak postal lehiaketa martxan ipini du. Parte hartzeko, oporretan bisitatzen duzun lekuaren postala bidali beharko duzu Euskal Birusa Elkarte Kulturalera (247 Postakutxa, 48260 - Ermua), irailaren 30a baino lehen. Epaimahaiak postala polita izatea eta lekuaren deskribapena baloratuko du. Lehen saria, 2 lagunendako Tenerifera astebeteko bidaia izango da, 3 izarreko hotelean, pentsio erdian (2010eko udaberria baino lehen disfrutatzeko, behe denboraldian). Bigarren saria, bi lagunentzako asteburu-pasa landetxe batean. Hirugarrena, bi lagunentzako egun-pasa spa batean. Gainera saririk jasotzen ez dutenen artean afaria zozketatuko da Mendiola jatetxean. Gazte txokoan, 12 urtera arteko umeek parte hartu ahal izango dute eta sariak erosketak txeketak izango dira (50, 40 eta 30 eurokoak).

**Ikasturteari agur esateko jaia
Eskolabarrin**

Maiatzaren 29an Eskolabarrin ikastetxeak eta Guraso Elkartek jaialdia antolatu zuten Aritzmendi pilotalekuan. VIII. edizio honetan, 2, 3 eta 4 urteko ikasleek kurtsoari agur esateko ekitaldiak aurkeztu zituzten. 5 urteko ikasleek, berriz, urte osoan landutako 'Gaixo Tranpatiak' antzezlanaren estreinatua zuten. Horretaz gain, ikastetxeak 8. mintegia antolatu zuen maiatzean, 'Aisialdia eta Baloreak' izenburupean. Mintegi horrek, baloreak igortzeko garaian, aisia seme-alabekin egotearen garrantziaren inguruko gogoeta egin nahi izan zuen eta kaleko jolasen sinpletasuna oinarritzko ildo izan zen. Antolatzaileen arabera, "arrakasta ikaragarria izan dute aurtengo jardunaldiek parte-hartzaile kopuruari dagokionez. Ezinbestekoa da gurasoek umeen heziketan integratzea".



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGAÑA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

TXALAPARTA
ABERNA

ASTEBURVETAN
BOKATAK, PINTXOAK
ETA AFARIAK

Errotabarri eskubaloi taldea indartsu



Bi urte besterik ez dira pasa Errotabarri eskubaloi taldea sortu zela eta dagoeneko, maila desberdineko 7 talde osatzeaz gain, kadete mailako Euskadiko txapelketa irabazi berri dute. Kadete mailan ere lan polita burutu ostean Espainiako txapelketarako sailkatzea lortu zuten maiatzean. Lan isila egiten Mikel Martin, Olatz Arrarte, Aitor Muiños, Mikel Maeso, Asier Duran, Naiara Lasuen eta aipatu gabe utzitako zerrenda luzea dago guraso eta borondatezko kidez osatua. Benjamin maila hasi eta jubencil maila

bitarte, makina bat neska elkartzea lortu dute. Sari gisa, datorren denboraldian Euskal Ligan izango dira ermuarrak eta jubencil mailako 3 jokalar, Espainiako selekzioarekin aritzeko aukeratu dituzte uztaileko egingo den deialdirako.

Sinadura bilketa Pedro Horrillo animatzeko



Italiako Giroa korritzen zegoela, Pedro Horrillo txirrindulari ermuarra jausi eta zauri larriak egin zituen maiatzaren 16an. Hasieran, Bergamoko ospitalera eraman zuten, baina Iruñako Klinika Unibertsitarioan dago orain sendatzen eta errehabilitazioa egiten. Ermuko zaletu talde batek, Pedro Horrillori eta bere familiari animoak helarazi nahian, sinadura bilketa sinbolikoa martxan ipini du. Sinatzeko, Udaleko bulegoetara edo Ermuko Merkatarri eta Ostalarien elkarteko denda eta taber-

netara jo beharko da. Ekimenak hilabete amaiera arte iraungo du, gutxi gora behera. Epe hori amaitutakoan sinadurak bildu eta horiek eramatera joango da herriko ordezkarien talde bat.

122 ume udako kolonietan



Ekaineko 29an, Antxitxiketan Aisialdi taldeak antolatzen dituen 2009ko udako 'Aintxitxixangoak' hasiko dira. Bertan, 6 eta 14 urte bitarteko 122 umek parte hartuko dute. Nagusienak 5 egun joango dira Friasera eta bertan tirolina, arku jaurtiketa, trekking, kayak eta kanoetan ibiltzeko aukera izango dute. Txikiek txango desberdinak egingo dituzte. Besteak beste, Pagomakurre, Donostiako Santa Klara irla eta Muskiz ezagutuko dituzte. Horrez gain, jolasak eta eskulanak egingo dituzte Ermuan.

Ertainak, txangoak egiteaz gain, Lekunberrin 3 egun pasako dituzte, bertan, espeleologia eta tirolina egingo dute. Txikiek eta ertainek batera pasatuko dute azken eguna, 'txarrieguna' deiturikoa. Ekintza hauek guztiak "euskara aisialdian sustatzeko asmoa dute", Ane Saenz koordinatzailearen aburuz.

ESHOLARA, OINEZ

Umeak eskolara oinez joatea bultzatu nahi duen ekimena martxan ipini da Ermuan azken hilabeteetan. Honen helburuak, umeak ingurua ezagutzea, autonomiaz ibiltzea, sedentaris-moa saihestea, gainerako umeekin harremana kalean indartzea eta kutsatzen duten garraioak alde batera lagatzea dira, besteak beste.

'IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU' MARTXAN

Euskal Birusa Elkarte Kulturala eta Topaguneak antolatuta, 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitas-moa martxan ipini da aurten ere. Honi esker, uztailearen 24ra arte, liburutegiko liburua maileguan hartu, irakurri eta bueltatzerakoan Maribel eta Xiripot liburutegietan %25eko deskontua lortuko duzu liburu bat erosteko. Euskal Birusaren bazkideek %50eko beherapena izango dute.

IGERIKETA IHASTARO TRINKOAK UDAN

Ermuko Kiroldegiak maila ezberdineko igeriketa ikastaro trinkoak antolatu ditu uda honetarako. Horiek ekainaren 24tik uztailearen 17ra bitartean burutuko dira, astelehenetik ostiralerara. Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko, kiroldegira joan beharko da.

QUETZAL
gazte denda
Baietz topatu
gustuko
zeozer?
Goienkale 9
943 17 00 65

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42


URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA


CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Urko 69tan ezetz!

Santixauak ate joka ditugu eta dagoeneko hainbat elkartek egitarauan sartzeko ekintza-proposamena luzatu dute. Horien artean azpimarratzekoa da aurten lehengo aldiz egingo den Urko-69 igoera neurtua. Artarrai Mendi Taldeak proposatuta, uztailaren 18an burutuko da proba bitxi hau. Bitxia, probaren irabazlea Urko mendira 69 minutu igotzen duena izango baita; gainontzeko guztiak, aurretik heltzen direnak zein denbora hau gainditzen dutenak deskalkifikaturik izango dira.

Denbora honetan egitea ez da batere zaila, baina probaren koska erlojurik ez erabiltzea da. Beraz, erritmoa buruz hartu beharko da: azkar joaten denak motelago joan beharko du eta motel doanak, beharbada, apur bat arintxoago. Hau da, beraz, probaren ezaugarri nagusia eta baldintza hauetan edozeinek irabazi ahalko du: haur, gazte, heldu, nagusi, kirolari edota sekula mendira joan ez denak ere. Antolatzaileek Patxi plazan hartuko dute denbo-

ra eta gero puntan partaideak noiz sartuko diren zain egongo dira. Denbora bakarra da balioko duena, 69 minutu, eta zehatz-mehatz denbora honetan inor sartuko ez balitz, goitik gertuen ibili dena izango da irabazlea.

Izen ematea Patxi plazan, uztailaren 18an bertan, goizeko 10:00etan izango da eta euro bat balioko du. Irteera eman ostean parte-hartzaile bakoitzak erabaki beharko du nondik joango den eta bakoitzak, bere ustetan den erritmorik egokiena markatu beharko du. Urko puntatik 20 metrotara kontrola jarriko da eta hortik aurrera ezin izango da geldialdirik egin eta puntara banan-banan sartu beharko da. Irabazleak batutako diru guztia jasoko du.

Proba honen bitartez Artarraiko kideek giro ona sustatu nahi dute, giro ona, mendizaletasuna eta mendira joatea ez dela irabazi beharreko lasterketa, baizik eta gozatzeko egiten den gustuko ekintza. Eta zu...
Urkorra 69tan ezetz!

Artarrai Mendi Taldea




Artarrai mendi taldea

ARTARRAI MENDI TALDEAREN BUZOI BERRIA

Santa Ana auzoaren gainean, Urko mendia galean dagoen 406 metroko muinoak izena ematen dio Ermuko mendi taldeari. Izenak ondo adierazten duen bezala artea eta harria dira bertan nagusi.

Aspalditxo jarritako buzoia apurtuta zegoenez, ekainean buzoia berriaren kokapen ekintza burutu du taldeak, mendi-tontor txartelak jasotzeko etxetxo bat jarri. Ermuko jarduera ekonomikoan hain zabaldua dagoen automobilgintzaren omenez, piolet bat puntan duen 'amortiguadore' itxurako figura jarri da.

Lehenengo buzoia, Jose Felix Igartuak egindakoa, 70ko hamarkadan jarri zen txistu eta dantza giroan. Ondoren 1997an berritu zen; beraz, hau hirugarren ekitaldia izan dugu. Ea errespetatzen dugun eta luza-roan irauten duen.



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44




KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala

- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixia
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Ermua-Mallabiko LHiren matrikulazio epea zabalik

Ermua-Mallabiko Hasi-erako Lanbide Prestakuntza Programen zentroak 3 ikastaro antolatu ditu 2009/2010 ikasturterako. Lehenengoa, 'Ibilgailuen mantentze laguntzailea' da eta honetan mantentze-lanak, ibilgailuen oinarriko konponketa eta osagaien muntaia irakatsiko da. Bigarrena, 'Industri mekanikoko langilea' da eta torua, fresatzeko makina eta CNC erabiltzen ikasiko dute ikasleek, metrologia eta egiaztapen prozesuaz eta Autocadez gain. Azkenik, 'Ile-apaindegi eta estetikako laguntzailea' ikastaroa dago, non ikasleek ilea mozteko eta orrazteko teknikak, manikura, pedikura, makillaje, depilazio eta masaje teknikak landuko dituzten.

Klaseak 2009ko irailaren 7an hasiko dira eta 2010eko ekainaren 19an bukatuko dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara. Ikastaro bakoitzak bi ikasturteko iraupena du (praktikak enpresetan eta erdi-graduak moduluatarako sarrera-froga prestatzea barne).

Matrikula uztaileen 30a arte zabalik egongo da eta izena eman nahi duten ikasleek Ermua-Udal Ekonomi Sustapen, Enplegu eta Trebakuntza alorrera jo beharko dute (Torretan). Informazio gehiago jasotzeko 943176422 telefonora edo

cip@udalermua.net helbide elektronikora idatz daiteke. Matrikula doakoa da.

Emaitza onak

Ermua-Mallabiko Lanbide Hastapenatarako Ikastegiak izena aldatu zuen aurreko ikasturtean. "Lehen erabiltzen genuen izenak ez zuen adierazten zentroak egun egiten duen lana, txiki geratzen zitzaigun", diote arduradunek.

Hala ere, zentroaren lehen helburua, bai orain eta bai lehen "ikasleek Bigarren Hezkuntzako titulua lortzea da. Hauek erakartzeko lanbide-heziketa eta irakaskuntza arautuaren arteko nahasketa egiten dugu. Horrela, ikasteaz gain, gazteei kualifikazio profesionala ematen diegu, eurak gustura eta baliagarri sentitzeko", diote. Tailerrak antolatzeko, zentroko arduradunek inguruko enpresen beharrak aztertzen dituzte urtero, behin formazioa bukatutakoan, ikasten jarraitzea erabakitzen ez duten ikasleek lana ahalik eta errazen topatu ahal izateko.

"Gehien kostatu zaiguna jendearen mentalitatea aldatzea izan da -diote arduradunek-. Hona ez dator besterik egiten ez dakien jendeak, hori gezur hutsa da. Orain dela egun batzuk egindako mintegietan, ikasleek euren lanak erakusteko aukera izan dute eta ikusitakoarekin harrituta geratu gara. Gainera harro erakusten dute, pozik


egindako lanarekin".

Arduradunen ustetan azpimarratzekoa da heziketa arloan eta baita arlo sozialean Ermua-Mallabiko zentroak egiten duen lana. "Azken


ikasturtean lortutako emaitzak gainera, bai heziketa mailan eta baita lan merkatu sartu diren ikasleen kopuruari dagokionez, ikaragarriak dira".

ERMUA-MALLABIKO ZENTROKO ESTADISTIKAK 2002/2003 IKASTURTETIK GAUR ARTE


Ikasleak guztira



Nongoak dira ikasleak



Ikasketekin jarraitzen dutenak



Ikasturte amaieran





NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomata

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

**OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA**

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea

DO

Mouth

ISI REDONDO

-Gaztaroa...

Nire bizitzako garai garrantzitsuak izan ziren haiek: lagunartea, kalea, auzoa, oroitzen asko.

-Zuen garaian 'pandilla' asko zen...

Oraingo gazteak lokaletan elkartzen diren arren, guk kalean egiten genuen bizimodua eta eguneko ordurik gehienak. Kalean elkartuz gero, borroka eta lehia ezin dira saihestu.

-Lanean noiz hasi zinen?

Aita hil zenean oso gaztea nintzen. 7 urte nituen. Anaia guztiok oso gazte hasi behar izan ginen lanean. Oso familia apala izan da gurea eta gogor egin behar izan dugu aurrera egiteko.

-Lantoki askotan ibilia?

Eraikuntzan ere ibili nintzen, baina azken 23 urteak ostalaritzan pasa ditut. Gredos, Outomuro, Zutik... Maki-na bat tabernatan aritu naiz.

-Amañan duzu 'El Caserio' jatetxea. Zer moduz?

Oso gustura nagoen arren, nik harrotasunez diot ermuarra naitzela. Jendeak eskuzabal hartu nau eta asko maite naute.

- Gau giroaren falta sumatzen duzu?


Gauarekin gogaituta amaitu nuen. Musikaren bolumen altuak du horren erru nagusia.

-Musika...

Gaztaroa heavy-a eta rock&roll-a nituen gustuko: Leño, Baron Rojo, AC/DC. Orain lasaiagoa nahiago dut.

-Anekdotak xeberrik?

Duela pare bat urte, Ermuan Koti abeslariaren kontzertua zela eta, Mikel Erentxun abes-



Ermuarra, 43 urte. 5 anai arreben artean zaharrena. Alaba baten aita. Ostalaritza du ogibide. Eibarko Amaña auzoko 'El Caserio' jatetxearen burua da. 9 urte daramatza bertan. Umoretsua, hizlaria eta alaia. Futbolzale handia, Real Madrid eta Athletic, biak ditu bihotzean. Ermuar peto-petoa.

laria nire tabernan sartu zen eta afaltzeko zer edo zer eskatu zuen. Ermuan zegoela uste zuen eta Amañan zegoela argitu behar izan nion.

-Zer du Amañak Ermuan ez daukagunik?

Zerbitzuak eta kirol mailako erraztasunak.

-Ermuar petoa zara...

Min asko ematen dit jendeak gutaz esaten dituenak entzuteak. Aurreiritzi asko eta fundamentu gutxi. Ez gaituzte ezagutzen nahiz eta pixkanaka jendea ikasten ari den.

-Zure bizitzako eguna...

Nire alabaren jaiotza eta ezkontza eguna.

-Zenbat ordu ditu zure lane-gunak?

10 ordu astegunez eta 14 asteburuetan.

-Estresik?

Ostalaritza horrela da. Estresa? Handia. Etxera joan, telebista piztu eta kateak datu eta aldatu egoten naiz, nire burua lasaituko ez duen ezer aurkitzen ez dudala.

-Oporretara nora?

Galizia aldera noa Amañako

lagun batzuekin.

-Bete gabeko ametsik?

Ikasketarik egin ez izana. Ez dakit ikasle ona izango nintzen edo ez, baina abokatu edo irakasle izateko ikasiko nuke.

-Zure bizitzako lema?

Bizi eta utzi besteei bizi izaten.

-Futbola...

Nire tabernan sortzen den giro bereziaren oinarria. Errespetua beti mantenduz. Ni Real Madrid eta Athletic-zalea naiz eta eztabaida sutsuak izaten ditut bezeroekin.

-Ronaldoren fitxajeak eman du zeresana...

Bizi dugun gizarte ereduaren isla da hori. Zirkuko txontxongiloa eta beste guztiak bera ikusi nahian.

-Euskara...

Ikasi dudun guztia jenduraren ikasi dut. Bezeroekin izan dudun harremanetan. Moldatzen naiz.

-Ermuko txoko bat...

Nire auzoa, Zeharkalea. 'Sol y sombra' taberna.

-Mendia ala hondartza?

Nahiago mendia. Udar hondartza, baina ahal bada igerilekua.

-Irakurtzeko ohiturarik?

Ez daukat pazientziarik. Aspertu egiten naiz. Ez dakit irakurtzen, horixe esaten diot alabari.

-Zer falta zaizu?

Amarekin eta etxeokoen egoteko tarte gehiago izatea.

-Pertsona berezi bat...

Don Teodoro zena. Denekin zuen akordua eta tratua. Eredu bat abade gisa.

Asier Ibaibarriaga



**SANATANA DHARMA
YOGA ELKARTEA**

San Roke, 24-behea
Informazioa: 943 74 85 93 edo
685 72 21 31 (Idoia)




Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

Andoni Aldape: “Herritarren aurrean jokatzek errespetua sortzen du”

Mallabitarra. 22 urte eta Mallabiko pilota taldeko kidea. Mallabiko pilotatokian ekainaren hasieran jokatu zen ‘Biharko Izarrak’ binakako pilota txapelketako finaleko protagonistetako bat izan zen. Finalean ez zuen zorte handiegirik izan, baina txapelketa polita burutu zuen. Afizionatu mailan, mailarik onena daukaten pilotariak bildu zituen txapelketa honen. Bertan izan ziren orain dela gutxi profesional mailan debuta egin duten 2 pilotari ere.

-Zenbat urterekin hasi zinen pilota munduan?

6 edo 7 urte izango nituen.

-Nolatan?

Eskolatik atera ostean, pilota zen gure kirola. Orain gauzak aldatzen doaz nahiz eta gaztetxoak ere badatozen.

-Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu pilotari?

Asteazken zehar 2 egun frontoian ematen ditugu entrenamenduak egiten; beste 3 egun, alderdi fisikoa lantzen eta asteburuan partidua.

-Zer moduz moldatu zinen gaztaroan?

Maila polita izan arren, ez nintzen beste batzuk adina nabarmendu, tropel handi baten partaide izan naiz.

-Azken urteotan nagusien

mailan jokatu duzu...

18 urte bete ostean, jubenil maila utzi eta senior mailan jokatzeko hasi nintzen. Pisuarekin arazo dezente izan nituen eta makalaldi bat izan nuen. Hori gaingitu ostean, txukun samar aritu naiz azken urteotan.

- Aurten ‘Biharko Izarrak’ txapelketan aritu zara...

Duela 2 urte ere aritu nintzen, baina maila eskasa erakutsi nuen. Aurten, zortea izan dut eta finalera iristea zaila ikusten nuen arren, azkenean finalean aritu naiz.

-Azken emaitza 9-22.

Finaleko nire bikotekidea, Gorka, txapelketako pilotaririk onena izan zen, baina biok ere ez genuen egunik onena izan.

-Herritar asko hurbildu zen finalera...

Herritarren aurrean jokatzek beti sortzen du errespetua. Jendea alde izan nuen arren ez nuen nire maila eman.

-Txapelketak zer nolako maila izan du?

Pilotari on asko egon dira txapelketan. Tartean izan dira profesional mailan debuta egin berri duten Cecilio eta Ibai ASPE enpresako pilotariak ere.

-Aurrera begira asmorik?

Hemendik gutxira, Donostiako Antiguoz auzoko pilota txapelketan arituko naiz.



Udara begira, herrietako festetan antolatzen diren partidak jokatzeko asmoa daukat. Ea gonbidapenik jasotzen dudana!

-Irujo-Olaizola finala ikusgarria izan zen...

Biak ere pilotari izugarriak dira. Irujok pilotari ematen dion abiada eta Olaizolaren teknika, izugarriak eta ikusgarriak benetan.

- Pilota ez-ezik, bertsotan ere ibilitakoa zara...

Eskolartekoetan eman nituen nire lehen pausoak. Bertsosalea betidanik izan naiz. Jaialdietara eta txapelketako saioetara joateko ohitura daukat.

- Aurtengo bertsolari txapelketa nagusiko txapelketa...

Egañak denei ateratzen die koskatxoa; halere, ea Unai Iturriagak sorpresa ematen duen.

Asier Ibaibarriaga

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Ardo banatzailea:

Riedel
Avgvstvs
Clos Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Trache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**
TELEFONOA: **943 17 60 75**

Txoko hau mallabitar eta ermuar guztiena da.
Zure argazki album familiarrean gurekin konpartitu nahi duzun erretratoren bat bazenu
(pertsionala, lagunartekoa, eskolakoa, ospakizun batekoa...)
ekarriguzu lasai.
Momentuan bueltatuko dizugu.

Artixeko eskola. Bertan agertzen dira: Juan Garitagoitia (Ibargarai), Eulalia Osa (Mañe Azpi), Maria Isabel Osa (Mañe Azpi), Angeles Sarasua (Torre), Felisa Cestafe Vitoria (Bilbo), Maistrie, Maria Jesus Mallabia (Zeintze), Isidora Txurruka (Urizar Etxebarri), Sebastiana Txurruka (Urizar Etxebarri), Pedro Uriarte (Agarre), Maria Concepción Sarasua (Torre), Maria Arrate Uzuriaga (Urizar), Justina Urizar (Ibargarai), Francisca Garitagoitia (Mardua), Felisa Zubiate (Aurtenetxe), Esteban Uriarte (Berano Goiti), Esteban Garitagoitia (Ibargarai), Julia Urizar (Ibargarai), Karlos Garitagoitia (Mardua), Mari Luz Txurruka (Urizar Etxebarri), Begoña San Martin (Etxebarri), Eugenio San Martin (Etxebarri), Rosario Garitaonandia (Artixe), Luis Amillategi (Barrenetxe), Gregorio Txurruka (Urizar Etxebarri), Facundo Garitagoitia (Mardua), Jesusa Garitaonandia (Artixe), Maritxu Garitaonandia (Artixe).



1945
(MALLABIA)



(ERMUA)
1965

Estibalitz González tribulian jarrita, Marisa González lehengosina gidari duela. Zeharkale amaieran dago aterata argazkia, gaur egun Kiroldegiko tabernaren atea dagoen lekuan. Atzean ikusten dira 'Motxu'neko soloak eta S. Pelaioko landak, etxe arrasto barik zati horretan. Ezkerreko argin-darraren postean, eskelak eta bandoak ipintzen ziren, inguruan hormarik ez zegoen eta; poste honen ezkerrean bistaritzen den zuriunea Okinzuriko kantera da, ordurako martxan.


Okerrak zuzentzen...

Apirileko Mallabiko argazkian jarri genuen Nati Arregi agertzen dala, baina ez da Nati beste norbait da. Maiatzeko Ermuko argazki zaharra Indalecio Ojanguren eibartarrak ateratakoa da.

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

ALOKAIRUAK

· Calpen apartamentua alokatzen da. Hondartza pare-parean. Uztailan. 943171107.



Ekainak 17
Zorionak Iker!
6 urte! Guraso eta anaiaren partez.



Ekainak 10
Zorionak ama zure seme-alaben partez.



Uztailak 22
Zorionak Jokin zure 14. urtebetetzean, guraso eta anaiaren partez.



Uztailak 7
Zorionak Maddi zure lehen urtebetetzean. Aupa gure parranderatxua! Gora San Fermin!



Ekainak 19
Zorionak Irati zure 9. urtebetetzean etxekoan partez eta muxu handi bat Markel, Julene eta lbairan partez.



Ekainak 7
Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez!

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, bidali zure iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu. Bestalde, norbait zoriondu nahi baldin baduzu, Drogeteniturrin kaleratu ditzakegu zure lagun edo senideen argazkiak eta zorion agurrak. Bidali helbide berdiner.

.....
Hurrengo alerako mezuak jasotzeko azken eguna:
UZTAILAK 14





Sexu diskriminazioa lan merkatuan

Zaida Fernández

ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADAKO KIDEA

Urteak dira emakumeek beraien eskubideak lortzeko eta ez galtzeko borrokatzen hasi zirela. Antzinako belaunaldiari esker, gaur egungo emakumeok, esaterako, hauteskudeetan geure botoa eman dezakegu, herrialdeak gobernatzeko hautagaiak izan gaitezke, ekonomiari buruzko erabakietan parte har dezakegu... Pausoz pauso, emakumeok geure iraultza partikularra aurrera eraman dugu. Iraultza hau motela izan da, baina tinko eutsi diogu.

Azken boladan lortutako eskubideen artean garrantzitsuena lan merkatuan sartzea izan dela esan-

go nuke. Nahiz eta emakumeok betidanik etxean zein etxetik kanpo lanean aritu garen, egun geure presentzia askoz gehiago nabarmentzen da arlo honetan.

Halere, aipatutako lorpena kontraesanek josita dago hainbat arrazoiengatik: alde batetik, nahiz eta legediak tratu-berdintasunerako eskubidea lan-kontratu eduki aurretik errespetatu behar dela adierazten duen, askotan enplegua lortzeko prozesuan sexu diskriminazioarekin topo egiten dugu. Hona hemen lehenengo sexu diskriminazio mota. Orokorrean emakumeok jantzita gaude, EHUK argitaratutako datuen arabera geure notak gizonenak baino hobekak dira, baina dirudienez hori ez da baldintza nahikoa enplegua lortzeko eta bidea oztopatzen digute. Izan ere, hainbat elkarrizketatan geure egoera pertsonalari buruz galdetzen digute, gizoni ez bezala.


Bestalde, behin enplegua lor-

tuta, beste diskriminazio mota batzuk agertzen dira. Adibidez, sexuaren arabera lan banaketa, ezegonkortasuna, aldi baterako kontratuak, mobbing eta sexu jazarpena, soldata desberdina, zuzendaritza lanpostuak eskuratzeko zailtasunak...


Honekin batera, lana, familia eta norberaren bitzta uztartzea erronka bihurtzen da, emakumeok lan merkatuan egoteaz gain, etxeko lanak eta zainketa lanak egin behar ditugulako.

Sexu diskriminazioari gogor egin behar zaio aurre. Hasteko, gizonenak gehiago hartu behar dute parte haurren zainketa eta etxeko jardueretan. Aldi berean, estatuek eta administrazioek baliabide ekonomikoak eman behar dituzkete. Halaber, enpresek emakumeak kontratatu, goikarguak eman, gizonenak eta emakumeen soldatak parekatu eta lan-egutegiak eta lanaldiak mugatu beharko lituzkete.

... egoera pertsonalari buruz galdetzen digute, gizoni ez bezala.



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Inoiz sumatu duzu sexu diskriminaziorik zure inguruan, bereziki lanean?

Nik eskola bateko jantokian egiten dut lana eta gehienak emakumeak gara.

Nik neuk ez dut sumatu nire lanean, baina uste dut oraindik badagoela lanean sexu diskriminazioa.



Nora Gaston. 27 urte. Langilea

Bai ikusi dut emakumeak diskriminatzen direla lanean. Esaterako, haurdun gertzen direnean, lanean erantzukizuna kentzen zaie eta gero zailtasun handiak dituzte erantzukizun maila hori berreskuratzeke.



Felix Cuadrado. 28 urte. Langilea

Galdategi batean egin nuen lan eta han gehienak gizonak ginen, baina bulegoan esaterako emakumeak zeuden. Uste dut oraindik emakumeek zailtasun gehiago dituztela lanean esaterako erantzukizun handiko postuak lortzeko.



Juan Carlos Abascal. 34 urte. Langilea

Egia esan nire lantegian ez dago apenas emakumerik. Nire inguruan ez dut sumatu sexu diskriminaziorik, baina oro har oraindik egon badagoela pentsatzen dut, esaterako soldatari dagokionez.



Jesus Antolin. 39 urte. Langilea

Nire inguruan sumatu dut halakorik, nire lantegian gehienak emakumeak baikara. Postuei dagokienez diskriminazioa argia da. Esaterako, eskulanak emakumeok egiten ditugu eta makina automatikoe-tan gizonak daude.



Susana Fidalgo. 34 urte. Langilea

Nik ez dut bereziki nire inguruan sumatu, baina oro har uste dut badagoela lanen sailkapen sexista. Alegia, badira oraindik emakumeentzako lanak eta gizonentzako lanak daudela uste dutenak.



Virtu Morales. 31 urte. Langilea

Testua: Alazne Aiestaran



ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxe. 943 17 42 17
48260 ERMUA



ez zaitez atzean gelditu, zatoz guregana!

Diputazio, 15 - behea

943 17 01 88

Uztailak 14

19:00: Orbe Kardinalaren plazan, soka-tira eta artaburu.

22:00: Valdespinako Markesaren parkean Seiren taldearen kontzertua.

Uztailak 15

19:00: Plazan, pepinoa eta triatloia.

22:00: Valdespinan Rosa Sánchezen kontzertua.

Uztailak 16

18:00: Udal Kiroldegian Areto futbol txapelketa.

19:00: Plazan, trainerak eta jatorrizko bekaketa.

22:00: Bertsolari jaialdia Valdespinan: Julio Soto, Miren Amuriza, Maddalen Arzallus, Beñat Ugartetxea, Manex Agirre eta Arrate Illara.

Uztailak 17

18:00: Udal Kiroldegian Areto futbol txapelketa.

18:00: Plazan, Mongolia Rallyearen Ermua-Ulan-Mallabia taldeko partaideen Mongoliarako irteera.

18:30: Orbe Kardinalaren Paleta-txapelketako finala.

22:30: Plazan, Play-back lehiaketa.

Uztailak 18

9:15: Udal Kiroldegian, Areto futbol txapelketa.

10:00: Orbe Kardinalaren pilotalekuan, Arku-tiro proba.

10:00: Orbe Kardinalaren plazatik Urko 69 l. igoera kontrolatua.

11:00: zabortege ohian, galeperrari tiraketa kaiolarekin, entrenamenduak. Lehiaketa, 16:00etan.

11:00: Plazan, Aldibereko xake partida azkarren XI. lehiaketa.

12:00: Lobianon, Estrategia jokoen hasiera-ekitaldia.

16:00: San Martin plazan, herrien arteko xake partida azkarren XIV. lehiaketa.

16:30: Plazan, VII. mus txapelketa.

19:30: Plazan, dantza erakustaldia, Txindurri.

23:30: San Pelaio plazan Revolver taldearen kontzertua.

Uztailak 19

9:30: Mendi-bizikletako XIV. herri martxa, Orbe Kardinalaren plazatik.

10:00: Udal Kiroldegian, Areto futbol txapelketa.

11:30: Orbe Kardinalaren plazako, Irratiz kontrolaturiko kotxeen 'Ermua hiria' XII. txapelketa.

16:00: Lobianon, roljoko-



en ekitaldi irekia.

17:00: Ermuko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Euskal Herria txirrindularitza txapelketa. Irteera eta helmuga Mallabiko errepedean (Garbigunean).

18:00: Plazan, musika eta dantza jaialdia: Ibai-Ega Dantza taldea, Anduriña eta Mariachi Real Azteca.

Uztailak 20

19:00: Plazan, kuboak eta soka-tira.

22:00: Plazan, txarangen abesti-lehiaketa.

Uztailak 21

22:00: Plazan, kontzertua, Marujita taldea.

Uztailak 22

22:00: Plazan, kontzertua, Cu-bop taldea.

Uztailak 23

10:30: Buruhandiak Plazan.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00: Plazan, haurrentzako parkea eta tailerrak.

17:00: Haurrentzako txokolata-jana, Plazan.

19:00: Plazan, 'Atxikistan' musika-ikuszuna haurrentzat.

22:00: Valdespinan, kontzertua, PAM taldea.

BESTELAKOAK**- Hilaren 1etik 12ra:**

Margo erakusketa: Irene Iriondo. Lanegunetan 18etatik 20etara. Jaiegunetan 12etatik 14etara eta 18etatik 20etara. Lobianon.


- Hilaren 1etik 5era:

San Pelaio auzoko jaiak: hainbat ekitaldi.

- Hilaren 6tik 12ra:

Sallabente auzoko jaiak: hainbat ekitaldi.

Patxi Lopez

**Harategia****M. LAZKANO**

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

**OPTICA
J. CASADO**

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

**MIGUEL
Harategia**

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

**hamburguesería
TITANIK**

*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Oporrak **€1,** **€2,** **€3,**

Costa del Sol

TORRE DEL MAR. Ekainaren
26tik uztailaren 16ra eta irailaren 18tik 30era.
Proamar hotela****, gosariak barne. Prezioa gaueko.



...Eta irailaren 21etik 31ra

1. bidaiaria **61€** 2. bidaiaria **1€**

Galizia

O GROVE. San Vicente hotela**, gosariak barne.
Uztailaren 1etik 10era eta abuztuaren 23tik 31ra.
Prezioa gaueko.

1. bidaiaria **32€** 2. bidaiaria **2€**

...Eta irailaren 16tik 30era.

1. bidaiaria **22€** 2. bidaiaria **2€**

Costa Brava-Maresme

BLANES. 7 gau. Europa apartamentuak.
Irailaren 19tik 25era. Prezioa apartamentuko,
2/4 lagunek okupatuta

1. bidaiaria **103€** 2. bidaiaria **3€**

...Eta irailaren 26tik urriaren 23ra.

1. bidaiaria **73€** 2. bidaiaria **3€**

Ekainaren 25etik uztailaren 15era bitartean egiten diren erreserbetarako. Kontrakorik esan ezean, oinarritzko prezioak pertsonako, logela bikoitzean. Ez dago barne ez kudeaketa-gasturik (5 euro), ez aseguruak. Baldintzak kontsultatu. Plaza-kopuru mugatua. ENK 618

Marqués de Valdespina, 14 Tel. 943.17.68.01 ERMUA



EROSKI / bidaiak

40 urte zurekin

UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
Urtzaile 1, 1. Eskuma 646 233 182



KIROL MEDIKUNTZA
Indartu
ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Kontsultak eta errekonozimendu medikoak • Fisioterapia
- 3. adinekoen mantenimendua • Esfortzu frogak • Urgentziak
- Masaje terapeutikoak eta kirol masajek
- Laneko patologiak eta erizaintza • Kirol errekonozimendu medikoak
- Ermuko IMDra abonatupei % 10eko beherapena lesio kontsultetan
- Odol ateratze zentroa, egun berean erantzuna jasoz

ETA GUZTITAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA



Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net



san pelayo
clínica dental hortz klinika

Inplanteak
Ortodontzia
Periodontzia
Hortz -zuriketa / Estetika dentala
Odontologia orokorra
Protesiak
P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz García Arregui
Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44



HORTZklinika
nerea iñiguez

- Odontologia orokorra
- Estetika dentala
- Inplanteak
- Ortodontzia
- Protesiak
- Periodontzia
- Zirujia

San Ignazio, 4 ERMUA
943 03 05 12

Irale
hortz klinika

Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Inplanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, beheka 943 17 71 34
www.irale.com

OSASUN GIDAN AGERTZEA NAHI BADUZU DEITU
943 17 93 50 edo 688 63 28 76
TELEFONORA